

- Mundu garaikidearen historiako gertaera garrantzitsuenak ezagutu eta aztertzea, denboran eta espazioan kokatzea eta gaur egun duten eragina azaltzea.
 - Azken bi mendeetako aldaketa sozio-ekonomikoak, politikoak eta pentsamolde kolektibokoak azaldu eta erlazionatzea.
 - Historiografiak onartutako terminologia egoki erabiltzea eta Historia garaikideari aplikatzea.
 - Oraingo egoera eta arazoak aztertzea, partikularismoak gaindituko dituen eta mundua osotasunean eta modu koherentean hartuko duen ikuskera baten bitartez.
 - Oraingo arazo sozialen aurrean sentsibilitatea bultzatzea, eta, era berean, jarrera kritiko, arduratsu eta elkartasunezkoa giza eskubideen defentsaren, balore demokratikoen eta bakeranzko bidearen aurrean.
 - Historia teknologia berriek sortzen dituzten informazio eta aldaketei modu irekian begiratzen dien zientzia dela ulertzea.
- * **XIX. mendeko oinarrizko aldaketak:** Antzinako Erregimenaren krisia. Industria Iraultza. Liberalismoa, nazionalismoa. Italia eta Alemaniako batasunak. Aldaketa eta mugimendu sozialak. Europako potentzia nagusiak. Bigarren industria iraultza eta Europak mundua menderatzea (inperialismoa).
- * **XX. mendearen lehenengo erdialdeko tentsio eta gatazkak.** Lehenengo Mundu Gerra eta bakearen antolaketa. Errusiako iraultza. SESB. Gerra arteko garaiko ekonomia. Demokraziak eta totalitarismoen gorakada. Bigarren Mundu Gerra eta ondorioak.
- * **Gaur egungo mundua.** Gerra Hotza eta blokeen politika. Deskolonizazioa. Mundu komunista. Mundu kapitalista. XXI. mende hasierako mundua.

EBALUATZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Prozesu eta gertaera aipagarrienak ezagutu eta aztertzea, eta kronologikoki kokatzea.
- Zenbait iturritatik informazio garrantzitsua eskuratu eta modu kritikoan baloratzea.
- Erregimen Zaharra ordezkatzeko iraultza liberalak eta nazionalismoak bideratu zituzten gertaera eta ideia politiko nahiz ekonomiko garrantzitsuenak aztertzea.
- Industria iraultzaren eragileak eta ondorioak (langileen mugimendua eta hedapen inperialista) azaltzea.
- XX. mendearen lehenengo erdialdeko gatazken eta krisien arteko erlazioak bereiztea, eta esparru ideologikoan izan duten eragina azaltzea.
- Bigarren Mundu Gerraren ondorengoko aldaketak azaltzea.
- Egungo aldaketen eragina eta milurteko berrian izanen dituzten ondorioak azaldu.
- Demografiak askatasunaren konkistan eta giza baliabideen errespetuan izandako lorpenak ezagutzea.

Eguneroko lanak eta etxeko lanak, gehienez notaren % 20 izango dira. Klaseko parte hartzeak, galderak, koadernoak euskararen erabilpena eta abar.
Ebaluazio bakoitzeko azterketa bat edo bi egingo dira. Berreskurapen bat ere burutuko da, edukiak gainditu ez dutenentzako.
Ekainean azterketa globala planteatu daiteke 2 edo hiru ebaluazio gainditu gabe dutenei.
Azterketak gehienez ere % 80

MATERIALA

Testu liburua Mundu Garaikidearen Historia1, Zubia- Santillana
Klaseko azalpenak eta horietarako erabiltzen diren material gehigarriak, hots, fotokopiak, kontzeptu mapak, testuak, eskemak, aurkezpen informatikoak, interneteko helbideak eta dokumentalak.
Web estatikoa <http://docentes.educacion.navarra.es/~mozkoidp/>
Blog zaharra <http://gogoan-mikel.blogspot.com/>
Garaikide Hº <http://garaikideeunate.weebly.com/>